

4. GAIA: IRAULTZA LIBERALAK ETA ADIERAZPEN ASKATASUNA

(Iraultza testuingurua, zeinean adierazpen askatasuna onartzen den konstituzioetan. Eguneroko prentsaren jaiotza)

- Biraketa antropologikoa eta Iraultza Kopernikarra. Eragin politiko sakonak ekarriko ditu. Pentsamenduaren aldaketa sakonak ematea ahalbideratuko dute (aldaketa mantsoa izango da)
- Iraultza Liberalak. Antropozentrismoa (gizona eta arrazoia, gailentzea (adb, emakumeen burmuina txikiagoa da, beraz) gailentzen da Iraultza Liberalen ostean. Banaketa bat ematen da, fedea espazio pribatura mugatuko da eta mundu publikoa arrazoiaren bidez gestionatuko da.
- Adierazpen askatasuna eskubide unibertsaltzat hartuko da
- Eguneroko prentsaren garapena (elitearen interesekoa, sistema halakoa delako) jaiotza
- Mugimendua: Aldaketa posible da. Etorkizuna gure esku dago.
- Arrazoiaren erabilerari esker gizona iraganera lotzen duen kateetatik askatu daiteke: ETORKIZUNA GUREA DA
- Monarkia absolutuen kontrako altxamenduak.
 - Iraultza Loriaua (Bill of Rights, 1689) Britania Handian gertatzen da.
 - Hamahiru Kolonien Independentzia (Konstituzioa, 1787) Berez ez da absolutismoaren kontrako altxamendua bat (metropoliaren aurkako altxamendua izan zen) baina independentzia borroka horren idealek bai egiten dute bat idealismoaren printzipioekin. Estatu Batuak hemen sartzen dira.
 - Frantziako Iraultza (Gizonaren eta Herritarraren Eskubideen Adierazpena, 1789; Konstituzioa, 1791)
- Sistema liberal bat da, berdinak diren gizonen artean adostutako paktua
- Iraultza liberalaren ondorioz absolutismoarekin bukatzen da eta gizonen arteko paktu batean oinarritzen da (emakumezkoak ez ditu kontuan hartzen): paktu hori konstituzioa da. Konstituzioak: Hiritarren eskubide eta betebeharrak.

- Testu hauek adierazpen askatasuna onartzen dute, eztabaidak hiritarren eta nazioaren garapena sustatzen du. Hiritarren eskubide bezala, garapenean laguntzen du, etorkizun hobeko bat bermatzen du: eztabaidatzeko eskubidea esaterako. Ilustratuek prentsa erabiltzen dute beren ideiak (egia) zabaltzeko, nazio hobeko bat lortu ahal izateko (kritikotasuna).

(Gai honetan garrantzitsuena da: Adierazpen askatasuna gorai patuko dela konstituzio ezberdinetan)

1. BRITAINIA HANDIA

- Prentsa oso aktiboa.
- 1712 urtetik tinbrea. “*Stamp Act*” legea (Zergen legea)
- Elitearentzako prentsa.
- Existitzen zirenei hauek gehitzen zaizkie: Biak oso aktiboak.
 - Igandekaria: *The Observer* (1791) Igandekaririk garrantzitsuena eta zaharrena (lehenengoa izan zen argitaratzen) Literaturari buruzko kronikak eta gertakari deigarriak buruzkoak
 - *The Times* (1785) Tinbrea mantentzen den garai guztian zehar, *The Times* izango da Britainia Handiko bizitza politikoan eragin handiena izango duen egunkaria, ez du inolako konpetentziarik izango baina tinbrea kentzen denetik aurrera hasiko zaizkio beste egunkari batzuk itzala egiten. Politikaz eta ekonomiaz hitz egiten du honek ez literaturaz, gai serioagoak direlako.

2. HAMAHIRU KOLONIEN INDEPENDENTZIA

- **Independentistak:** Independentziaren aldekoen artean bi egunkari izan ziren bereziki garrantzitsuak.
 - *The Boston Gazette* (1719). Hemen idatziko dituzte independentzien aitak beraien artikulak
 - *Common Sense* (1776). Panfleto moduko bat, liburuxka txiki bat. Metropolitik independizatzeko arrazoiak. Zentzuzkoa da independentzia eta horren argudioak ematen dira protestantismoaren ideiekin lotuta. Modu horretan identitate nazionala (Estatubatuarra) lortuko dute.

- **Lealistas:** Metropoliaren aldekoak.
 - *The Boston News-Letter* (1704) Egunero pasatzen zen metropoliko erregearen ikuskaritzatik. Hasieran bertan agertzen diren gaian Europari buruzkoak izango dira, pixkanaka hasiko dira tokiko gertakariei buruzko gaiak sartzen. Hemen idatziko dute independentziaren aitzak bezala ezagututako idazleek (Adams)
 - *“Kongresuak ezin izango du erlijiorik ezarri ezta horren praktika askerik debekatzeko duen legerik egin; adierazpen askatasuna eta prentsa askatasuna mugatuko duen legerik egin; pertsonen bilkura baketsurako duten eskubidea, ezta gobernuari bidegabekeri ordainik eskatu”*

Estatu Batuetako Konstituzioa,
Lehenengo Zuzenketa: 1791 urteko abenduaren 15ean.

3. FRANTZIAKO IRAULTZA

Gizonaren eta herritarraren eskubideen adierazpena (1791 urteko konstituziorako hitzaurrea). Napoleonen garaian prentsaren gaineko kontrola oso gogorra.

- 10. artikulua. Inor ez da xaxatu behar bere iritziengatik, erlijiosoak badira ere, nolaz eta iritzi horien agerpenak legeak ezarritako ordena publikoa nahasten ez duen.
- 11. artikulua. Pentsamenduen eta iritzien komunikazio askea gizonaren eskubide preziatuenetakoa da. Ondorioz, herritar orok libreki hitz egin, idatzi eta argitara dezake; askatasun honekin egin ditzakeen gehiegikerien arduradun izanik legeak araututako kasuetan.

4. LA PEPA (1812) edo Kadizeko Konstituzioa. (Adierazpen askatasuna onartzen duen lehenengo konstituzioa)

- Lehenengo konstituzioa, adierazpen askatasuna onartzen den arren erlijio katolikoa da erreinuko erlijio ofiziala (beste herrialdeetako lehenengo konstituzioaren diferentzia nagusia da erlijioaren kontu hau)
- (klasean egindako testu iruzkin bat azterketan sartuko da, urte batean konstituzio bat sartu zen)

- Absolutistentzat Liberalak frantsestu hutsak dira
- Indarrean: 1812-1814 (liberalismoa), 1820-1823 (absolutismoa) eta 1836-1837 (liberalismoa).
- Inprenta askatasuna.
- Aurreko zentsuraren bukaera.
- Garai horretan hasiko da prentsa politikoa:
 - Liberala: *El semanario patriótico* (1808-1812) *La abeja española* –aldizkari satirikoa– (1812-1813), *El Zurriago* (1821-1823).
 - Absolutisten aldekoa/zuritzailleak: *El censor general* (1811-1814).